


TELEFONIA ETA INTERNET, komunikaziorako erraztasun berriak

telefonía eta internet
telefonía eta internet
telefonía eta internet

Two overlapping orange circles of different sizes are located in the bottom right corner of the page.

Komunikazio-sistemek **bilakaera handia** izan dute azken urteetan.



TEKNOLOGIA BERRIEI buruzko BAIEZTAPEN batzuk

✓ Gizakia gizartean bizi da eta komunikatzeko beharra du.

Behar horrek komunikazio-prozesua errazteko tresna gero eta sofistika-tuagoak bilatzera bultzatu du.

Komunikabide berriek harremanetarako modu tradizionalak ordezkatu dituzte, eta **giza elkarreraginerako modu berriak** sortu dira.

✓ Teknologia berrien bilakaera oso bizkorra izan da.

Teknologia berriak ia konturatu gabe ezarri dira gure bizi-ohituretan, eta gure egunerokotasunerako behar-beharrezko tresnak bihurtu dira.



Ba al zenekien...

...Espainiako Estatuko lehen telefonoa 1880. urtean instalatu zela? Mende bat geroago, 1983. urtean, lehen telefono mugikorra merkaturatu zen, eta interneteko lehen konexio ofiziala 1990an izan zen.

Teknologien bilakaera azkarrak pertsonen ezagutzak gainditu ditu askotan.

✓ TEKNOLOGIA gizateriaren aurrerapenerako tresna izan da.

Informazio eta Komunikazioko Sistemen Teknologia **gizarte garatuen beharrekina batera hazten da.**


Baina teknologiaren garapen hori **ez da modu berean aldatzen leku guztietan, eta gizarte-desberdintasun eta ekonomia-desberdintasun handiak sortzen ditu.**



Ba al zenekien...

...garapen-bideko herrialdeak, oraindik ere, oso atzean daude la herrialde garatuekin alderatuz, Informazio eta Komunikazio Teknologiaei dagokienez? Telefonia mugikorra da herrialde horietan erabileraren hirukoiztu duen teknologia bakarra azken bost urteetan.

“Informazioaren Ekonomiari buruzko 2007-2008 txostena”, Merkataritzari eta Garapenari buruzko ONUren konferentzia, UNCTAD



Hainbat herrialdetako biztanle gehienek energia elektrikorik ez dutenez, eta gainera, gehienak analfabeto edo erdianalfabetoak direnez, zaila da herrialde horietan interneten zabalkuntzari buruz hitz egitea.

✓ Teknologia berriek ingurumeneko eragina murrizten laguntzen dute.

Garraioa, salmenta-puntuak, eta abar murrizten laguntzen dute, eta horrek, era berean, hain kutsakorrek ez diren merkataritza-moduak garatzea ahalbidetzen du.

Nolanahi ere, balio eta ohitura berriak hartzeraren bultzatzen gaituzte, balio eta ohitura horiek geure benetako beharrak ahaztea eragin diezagukete, eta beraz, **gizarte-eragin eta ingurumen-eragin negatiboak** dituen gehiegizko produkzioa susta dezakete.

✓ Teknologia berriei esker, zerbitzuen eta produktuen eskaintza handiagoa eduki dezakegu.

GURE KONTSUMO MAILA AREAGOTZEA ere errazten dute.

Batzuetan, teknologiaren bilakaera-prozesu bizkor horretan, ez dugu denborarik egunean egoteko, produktu berrien ezaugarri eta egiteko guztiei dagokienez. Horrek, askotan, **beharrak baino gehiago, berritasunak eta apetak eragindako kontsumoa** sortzen du.



✓ **Teknologia berrien agerpenak erosoagoa egiten du gure bizitza.**

Horixe da **publizitateak eta modak** adierazten digutena.

ADIERAZTEN DIGUTENEZ, lan egiteko, autoan bidaiatzeko, kalera irte- teko, gure lagunekin egoteko, eta abar, teknologiak behar ditugu.

Ez dugu ahaztu behar **erraztasun horiek ez dietela geure benetako beharrei itzal egin behar.**

Teknologia berrien eragin positiboa
ERABILERA ARDURATSU ETA KRITIKOARI
esker lortzen da



Ba al duzu **ERANTZUNIK**
galdera hauetarako?

- Noizbait hausnartu al duzu herrialdeen arteko desberdintasunei buruz, teknologien bilakaerari dagokionez?
- Elkarrekin aurrera egin al dezakegu?, batera alda al gaitzke?
- Egunero erabiltzen ditugun teknologia guztiak benetan beharrezkoak direla uste al dut?
- Teknologia berriei eskaintzen dizkiguten aukera guztiak baliatu, eta aldi berean, teknologia horiek modu arduratsu eta kritikoan erabili al ditzakegu?
- Hondakin elektronikoak baztertzerakoan ingurumenarekiko jokatibide arduratsuari eusten al diot? Behar den tokira botatzen al ditut?

Zenbait esaldik gai horri buruzko gogoeta egiten lagunduko digute...

EZ AHAZTU

hobetzearren aldatzeko eta aurrera egiteko eskubideak ez duela aberririk, Gizateria osoaren eskubidea baita

“Mila gauza aurrera doaz. Bederatzehun eta laurogeita hemeretzik atzera egiten dute. Horixe da garapena.”

Henry F. Amiel

Besten beharrak gehiago sentitzen ditugunean, guk geuk behar gutxiago ditugu.

Doris Lessing

Herri bat zibilizatzea herri horri behar berriak sentiaraztea baino ez da.

André Gide

AURRERAPEN TEKNOLOGIKOAK MODU ARDURATSUAN ERABILTZEAK HONAKO HAU ESAN NAHI DU:

- * Erosi baino lehen **gogoeta egitea**.
- * **Beharretan oinarritzea**, eta ez moda jakin batean.
- * **Merkatuko eskaintza guztiak aztertzea** eta benetako beharrei hobeki egokitzen zaiena aukeratzea.
- * **Gastua murriztea**.
- * **Erabilera murriztea**.
- * **Arriskuak saihestea**.

TELEFONIA MUGIKORRA gure kontsumo-ohituretan eta **EKONOMIAN** sartzen da. Zain dezagun gure **SAKELA**



Ba al zenekien...

...telefono mugikorra gaur egun gehien erosten den gaien artean dagoela? Ordenagailua da hurrengoa.

““Produktu elektronikoen, mugikorren, eta ordenagailuen erosketan-ohiturei buruzko azterketa”, Eusko Jaurlaritzak, 2008

- Telefono mugikorra erosterakoan, kontuan izan **HORTIK GUTXIRA ZAHARKITUAK GERATZEN DIRELA GUZTIAK**.
- **SOILIK BEHARREZKOA DENEAN** erabil ezazu mugikorra.
- **EZ** ezazu **LUZAROAN HITZ EGIN** beharrik ez baduzu.
- Kontratuko **ORDUTEGI MERKEENEAN** egin ezazu deia.
- Mugikorra zure zerbitzuan dagoen gaia denez, zure beharrei erraz erantzun behar die.

TXARTELEKO EDO KONTRATUKO telefono MUGIKORRA aukeratzeko, kontuan har ezazu nola erabiliko duzun:

- ▶ TXARTELEKOA: Mugikorra gutxi erabili behar baduzu, eta soilik aurkitze-ko moduan egon nahi baduzu. (Deiak garestiagoak dira, baina ez da konexio-kuotarik edo hileko kuotarik ordaindu behar).
- ▶ KONTRATUKOA: Sarri erabili nahi baduzu.

Kontratuari dagokionez, hainbat motakoak izan daitezke. Hala ere, erosi baino lehen, **ESKAINTZAK KONPARA ITZAZU:**

- **Gehien komeni zaizuna aukera ezazu**, zure beharretara eta ekonomia-egokitasunak baina.
- Kontuan har ezazu kontratatutako zerbitzuak **zein ordutegitan erabiliko dituzun gehien**.

KONTRATU IDATZIA exijitu ezazu beti.

- **Arreta handiz irakur ezazu.**
- **Zalantza guztiak argi itzazu.**
- **Kontratua eta publikitatea gorde itzazu.** Erreklamazioa egin nahi baduzu, baliozkotasuna dauka horrek.

Kontratuak hainbat premisa bete beharko ditu (abenduaren 29ko 44/2006 Legea, *Konsumitzaile eta Erabiltzaileen Babesa Hobetzeko*), **BAJA EMATEA** erabakitzen badugu, prozesu hori zaila izan ez dadin.

- **Baja emateko prozesuari buruzko informazio argia.** Baja-eskaera jasota gera dadin, gomendagarrienak honako hauek dira: posta ziurtatua, faxa, burofaxa eta posta elektronikoa. Baja-eskaera telefono bidez egiten bada, **ez zaizu ahaztu behar eskaeraren erreferentzia-zenbakia eskatzea eta idaztea.** Arazoren bat badugu, erreferentzia-zenbaki horrek balioko digu egiaztagiri gisa.
- **Edozein unetan eman daiteke baja.**
- **Behar baino lehenagoko bajagatik neurritz kanpoko zigorrak ez.**



Ba al zenekien...

...iraute-klausularik badago, kontratuan ezarritako epea amaitzeko geratzen den denboraren **proportzioan kobratu beharko da dagokion zehapena.**

FAKTURA, gastua kontrolatzeko bide bat

Hilaren amaieran telekomunikazio-operadorearen faktura iristen zaigunean, honako hau galdetzen diogu gure buruari:

Zer dela-eta gastatu dugu hainbeste diru hilabete honetan?


Gehienetan, telefono mugikorra **gehiegi eta behar ez dugunean erabiltzen dugu.**

✓ Begira ezazu faktura

Horri esker, egindako gastuari buruzko hausnarketa egin ahal izango duzu, eta kontratu mota aldatzeko aukera kontuan hartu, behar izanez gero.

✓ Kontuz tarifikazio osagarriko zerbitzuekin!!

Tarifa handiagoko telefono-zerbitzuak.



Tarifikazio osagarriko zenbakiak:

803	<i>Soilik pertsona helduentzat diren zerbitzuak.</i>
806	<i>Aisialdiko eta denbora-pasako zerbitzuak.</i>
807	<i>Profesionalentzako zerbitzuak (abokatuak, psikologoak, medikuak...).</i>
907	<i>Interneten bidez sar zaitezke telefono horietara.</i>

- **Pertsona helduei zuzendutako zerbitzuek** ezin izango dute 30 minutu baino gehiago iraun, denboraldi hori pasa ondoren deia automatikoki moztuko baita.
- **Adingabekoei zuzendutako zerbitzuen kasuan**, tutore edo tutoreen baimena duenaren berri izan behar dute zerbitzua ematen duten enpresek, eta gainera, ezin izango dute 8 minututik gorako iraupena eduki deiek.
- Mota horretako deien kostua bereizirik adierazi beharko da fakturan.

TARIFIKAZIO OSAGARRIKO DEIEN GAITASUNGABETZEA eskatzeko aukera ere badugu.

Kasu horretan, eskatutako deskonexioa gauzatu beharko du konpainia operadoreak gehienez 10 eguneko epearen barruan. Deskonexioa epe horren barruan gauzatzen ez bada, deskonektatzea eskatu dugun zerbitzuaren kostuak operadoreak ordainduko ditu.

C.S.S.T.A. Tarifikazio Osagarriko Zerbitzuak Gainbegiratzeko Batzordeak tarifikazio osagarriko zerbitzuak emateko Jokabide Kodea bete dadin zaintzen du.

Informazio gehiago izateko:

*Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa
Kontseiluak, aholkulariak eta batzordeak*

www.mityc.es

✓ Kontuz SMS Premium deritzenekin!

Lehiaketetan parte hartzeko, melodiak, logoak, pantaila-babesleak eta abar jaisteko SMS-zerbitzuek, SMS arruntek baino kostu handiagoa badute.

LEHEN ZENBAKIAREN HASIERA:	PREZIOA	Zerbitzua ematen duen enpresak doako mezua bidali beharko du, honako informazio honekin:
2	≤ 1,2 €	Enpresa hornitzailearen izena, zerbitzu mota eta prezioa.
3	1,2 < prezioa ≤ 6 €	
79	≤ 1,2 €	
99	≤ 6 €	

* Botazio, lehiaketa, eta abarren kasuan... (hau da, eduki jakin bat bidaltzea eskatzen ez denean) zerbitzua ematen duen enpresak doako mezua bidali beharko du, eskatutako jardunaren emaitzari buruzko informazioarekin.

Zerbitzu horiek ematen dituzten enpresek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Zerbitzua eskatzeko elkarren segidako 2 mezu edo gehiago bidaltzea ez exijitzea.
- Eskatu ez diren mezuak ez bidaltzea geroago.
- Baja emateko prozedura errazak jartzea.

Zerbitzu horietatik edozein unetan deskonektatzeko eskubidea daukagu, aldez aurretik enpresa operadoreari eskatzen badiogu.

Telefoniako enpresa operadorearekin ditugun GATAZKAK KONPONTZEKO:

1. Bezeroarentzako arreta-zerbitzua, operadoreak berak duena

Zerbitzu horren bitartez gatazka konpontzea lortzen ez bada, dagokion erreklamazioa aurkeztuko da zerbitzu horretan bertan, gehienez HILABETEKO epean gatazka hasi zen unetik zenbatzen hasita.

Erreklamazioaren espediente-zenbakia hartzea ez ezazu ahaztu

HILABETEKO epean operadorearen erantzunik jasotzen ez badugu, edota emandako erantzunak gogobetetzen ez bagaitu, honako hauek-tara jo dezakegu:

2. KIUBetara, Kontsumoko Lurralde Ordezkarizetara, eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundeetara

Entitate horiek, BITARTEKOTZAREN bidez, alderdiak adostasunera iritsi daitezzen saiatuko dira. Operadorearen erantzunak gogobetetzen ez bagaitu, erantzun hori jaso eta 3 HILEKO epea izango dugu erreklamazioa jartzeko honako hauen aurrean:

3. Kontsumoko Arbitraje Sistema

4. SETSI Informazioaren Gizarterako eta Telekomunikazioetako Estatuko Idazkaritza

www.mityc.es/Telecomunicaciones/

Kontsultei eta erreklamazioei buruzko informazio gehiago izan nahi baduzu:

Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza
www.kontsumo.net

Telefonoak eta ordenagailuak MODU ARDURATSUAN ERABILTZEA badauka LOTURARIK OSASUNAREKIN ere

Gidatzean ez ezazu erabili telefono mugikorra, eta honako hau **GOGOAN IZAN**

Gidatzean telefono mugikorra erabiltzea DEBEKATZEN DU legeak.

“Esku libreko” aukera ez dago debekatua, baina gidatzean hori erabiltzea ere arriskutsua da, zera egiaztatu baita, kontzentratzeko gaitasunak behera egiten duela, eta beraz, arau-hausteak egiteko eta istripuak eragiteko arriskua handiagotzen duela.



Ba al zenekien...

...gidatzean telefono mugikorretik hitz egiteak zirkulazio-istripua izateko arriskua **5-10 aldiz** handiagotu dezakeela?

Automobilaren Europako Komisarioa, CEA

- ▶ **TELEFONO MUGIKORREN EMISIOEK** Intentsitate handiko ekipo elektronikoetan interferentziak sor ditzakete. **Deskonektatzeko eskaerei kasu egin, batik bat hegazkinetan eta ospitaleetan.**
- ▶ Deirik jasotzea espero ez baduzu, **telefono mugikorra ez ezazu utzi piztuta gauean.** Itxarondeia dagoenean ere telefono mugikorrek emisio irra-ti-elektrikoak igortzen ditu.

- ▶ **Estaldura ona dagoenean erabil ezazu telefono mugikorra.** Telefonoen arteko distantzia zenbat eta txikiagoa izan, bi telefonoek igorri behar duten potentzia txikiagoa da, eta beraz, emisio irrati-elektroerako eraginpea ere txikiagoa izango da.

Informazio gehiago izateko:

Zientzia eta Teknologia Ministerioa

Instalazio irrati-elektroerako eta eraginpe-mailei buruzko informazio-zerbitzua

www.mityc.es



- ▶ **Babes-iragazkia duten kalitatezko pantaila MONITOREAK eros itzazu.** Irudiek dir-dir egiteak begiak nekatu eta buruko mina eragiten du.
- ▶ **TEKLATUA ordenagailuaren altuera berean jar ezazu.** Jarrera txarrak saihestuko dituzu horrela.
- ▶ **EKAITZ ELEKTRIKORIK BADAGO, ez ezazu ordenagailua erabili.** Deskargarik gerta daiteke.
- ▶ Jarrerarekin edo ikusmenarekin lotutako arazoak saihesteko, **EZ ZAITEZ LUZAROAN EGON ordenagailuaren pantailaren aurrean.** 45 minutu egon ondoren, komenigarria da atsedean hartzea.
- ▶ Saia zaitez **ordenagailuaren osagaien irekiguneetan gauzakirik ez sartzten.** Suterik edota zirkuitulaburrik gerta daiteke.
- ▶ Matxurarik baduzu, zerbitzu teknikora deitzea da onena. Ordenagailuaren barrua manipulatu behar baduzu, **ez ezazu ahaztu aurretik sare elektrikotik deskonektatzea eta osagaiak hoztu arte itxarotea.**

INTERNET, KOMUNIKAZIORAKO ETA INFORMAZIORAKO MODU BERRIA



Internetek komunikatzeko, harremanak izateko, erosteko, informazioa partekatzeko, eta abarrerako aukera zenbatezina eskaintzen ditu...

Operadoreek interneterako sarbidea izateko hainbat modu eskaintzen dituzte, sarbide-abiadura eta tarifa ezberdinekin.

Internerako sarbidea izateko modu ohikoenak



TSK edo Oinarrizko Telefonia Sarea

Tonu bidezko konexioa, telefono-linearen bitartez.

ADSL

Linea digital bidezko konexioa, telefono-seinale konbentzionala eta internerako konexioa bereizten dituen iragazki baten bitartez.

ZUNTZ OPTIKOA

Harizpi formako uhin eramaile baten bitarteko konexioa. Uhin eramaile hori, normalean, beirazkoa izan ohi da, eta argizko seinaleak igortzen ditu, telefono-linea tradizionala alde batera utzita.

* Konexioaren abiadura desberdina izan daiteke, eskainitakoaren edota zerbitzuaren enpresa-hornitzailearekin kontratatutakoaren arabera. ADSL bidezko konexioetan eskaintzen dena kontuan hartuz, datuak jaisteko abiadura igotzekoarena baino handiagoa izan ohi da.

ONGI INFORMA ZAITEZ
eta zure behar eta interesetarako hobekien datorkizuna aukera ezazu.

Internerako sarbidea izateko modu berria

TELEFONO MUGIKORRAREN BITARTEZ



GSM

GPRS

HSDPA

Internerako sarbidea izateko modu berezi bat

SATELITE MUGIKORRAREN BITARTEZ

Kable edo ADSL bidezko internerako sarbiderik ez dagoen lekuetan ohikoa da, esaterako, landa-eremuetan.

Datuak satellite bidez jaisten edo igortzen badira.

Igorpena linea tradizionalaren bitartekoa bada.

Batez ere, horietako zerbitzuren bat KONTRATATZEA erabaki baino lehen, beharrezkoa da honako hauek KONTUAN HARTZEA:

- Zerbitzu hori zenbateraino BEHAR DUGUN,
- Zertarako ERABILI nahi dugun,
- erabiltzeko ORDUTEGIAK
- eta eskaintzen dizkiguten TARIFAK.

ARRETAZ jokutzen badugu, KONEXIO HOBEA izango dugu

KOMUNIKAZIORAKO MODU berri horrek, era berean,
ARRISKU ETA IRUZUR BERRIAK dakartza
Ikas ezazu ezagutzen eta atzematen

Batez ere, ZURE DATU PERTSONALAK babes itzazu

INTERNETEN datu pertsonal ugari ibiltzen dira, baldin eta:

- *Web orri batean izena ematen baduzu.*
- *Sarearen bitartez erosketarik egiten baduzu.*
- *Zerbitzu bat kontratatzen baduzu.*
- *Txatak, harremanetarako orriak eta antzekoak erabiltzen baidituzu.*

Kontu handia izan behar dugu

- * Ezagutzen ez dituzun pertsoneri **EZ IEZAIESU ZURE DATU PERTSONALAK EMAN**. Eta are gutxiago pertsona hori foro ireki batekoa bada.
- * Datu pertsonalak **SOILIK PROTOKOLO SEGURUAK** dituzten lekuetan eman itzazu. Egiazta ezazu Web guneak pribatutasun-politika duela eta pertsona edota entitate arduradunaren izena eta helbidea, eta datu pertsonalak biltzeko helburua adierazten direla.
- * **BEHAR-BEHARREZKOAK DIREN DATUAK** eman itzazu soilik.
- * Zenbakidun edo letradun **PASAHITZAK** aukera itzazu. Automatikoki eskaintzen dizkizutenak dira seguruenak, igartzeko zailenak baitira. Aldian-aldian pasahitza aldatzea ere komeni da. Eta batez ere, **INOIZ ERE EZ** iezaiozu pasahitza inori ere eman.

Informazioaren Gizartearen esparruan Internet bidezko datuen babesaren kultura sortzen laguntzeko, **Datuak Babesteko Espainiako Agentziak** hainbat GOMENDIO sortu ditu; gomendio horietan, gaur

egun Sarean agertzen diren arrisku nagusiak aztertzen dira, eta arrisku horien eraginak prebenitzen saiatzeko hainbat jarraibide zerrendatzen dira.

www.agpd.es

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ere datu pertsonalak eta bitzita pribatua babesteko garrantzia jakinarazten digu herritarroi, nahiz eta erakunde horren lege-konpetentziak euskal herri-administrazioetaraino iritsi soilik, eta ez enpresa pribatuetaraino.

www.avpd.es

Segurta itzazu SAREAN EGINDAKO EROSKETAK

◆ Internet bidezko erosketak egiteko BIDE SEGURUA bila ezazu

SSL protokoloa erabiltzen duten Web Orriak. Ingelesezko sigla horiek “konexio seguruko geruza” esan nahi dute.

Hartzaileari bidean inolako manipulaziorik izan gabe iritsiko zaizkionaren bermea edukiko dugu horrela.

Nola ezagut ditzakegu SSL protokoloa erabiltzen duten web orriak?

— **Helbide-barran**, helbidea hasten denean, honako letra hauek azaldu beharko dira: https). “S” hizkia azaltzen bada, orrialde hori segurua dela esan nahi du.



— Hala eta guztiz ere, segurtasun handiagoa eskaintzen digun beste adierazle bat ere badago. Interneten ibiltzeko erabiltzen den programan, nonbait, **GILTZARRAPO BATEN irudia azaldu behar du**. Saguarekin klik egin gabe seinalatzen badugu, “SSL Segurtasuna” argibidea agertuko zaigu.



◆ Arriskurik gabeko ORDAINKETA segurtatu ezazu.

Onea produktua helbidera iristean eta **JASOTZEAN ORDAINTZEA** da.

Hainbat Web orrialdek aurretik ordaintzea eskatzen dute, hau da, banku-transferentziak edota **TXARTEL BIDEZKO ORDAINKETAK** egitea.

- Soilik Internet bidezko erosketak egiteko kreditu-txartel eksklusiboa erabil ezazu, erosketa hori egiteko beharrezkoa den zenbateko zehatzarekin.

Informa zaitez zure bankuan

- Egiaztagiri guztiak inprima eta gorde itzazu.



“CONFIANZA ONLINE” BEREIZGARRI PUBLIKOA

Bereizgari horren bitartez, autoerregulazio-sistema batera atxikitako enpresak bereizi ahal izango ditugu, eta horrek, beraz, enpresa horiek merkataritza elektronikoko eta publizitate interaktiboko jardueretan kode etikoei eta erantzukizunekoei eusten dietenaren segurtasuna ematen digu.

www.confianzaonline.org

Iruzurrak identifika itzazu. PHISHING-ak

Horrelako iruzurrezko Web-orriak Web-orri originaltzat aurkezten dira (normalean bankutzat), erabiltzaileak identifikazio-izena eta pasahitza sar ditzan. Datu horiek iruzurrezko ekintzak gauzatzeko erabil daitezke.

HORRELAKO IRUZURRAK SAIHESTEKO:

ZURE BANKUAREN HELBIDEA gordetzeko ohitura har ezazu (eta gogokoetan gehitu ezazu).

EZ EZAZU BILATZAILERIK ERABILI zure bankuko web orrialdera sartzeko (horrela errazagoa baita iruzurreko Web orrialde batean erortzea).

Gainera, honako hauek ere komeni dira:

- SSL protokoloa duela egiaztatzea.
- Anti-phishing programak instalatzea.

INGURUMENEAN kalterik sortzen ez duen aurrerapen TEKNOLOGIKOA



Ba al zenekien...


...kalkuluen arabera, munduan hondakin elektronikoen % 11 baino ez dela birziklatzen? Gainerako % 89a legez kanpoko zabortegi edo hondakindegietara doa.

TBS Industries

Teknologiaren etengabeko aurrerapen bizkorren eraginez, produktu elektriko eta elektroniko ugari berehala zaharkituak geratzen dira.

Horrelako produktuak gero eta gehiago kontsumitzen direla kontuan hartuz, gero eta HONDAKIN gehiago sortzen dira.

Ez dugu ahaztu behar **produktu horiek hainbat metal eta lehengai dituztela, eta horiek hondakin bihurtzean, oso toxikoak direla.**



Mota horretako HONDAKIN GUTXIAGO sortzeko

SOILIK BENETAN BEHAR DITUGUN PRODUKTU ETA ZERBITZUAK EROS DITZAGUN, modari edota publizitateari jaramonik egin gabe.

BERRERABILTZEKO

Erabiltzen ez ditugun ordenagailuak, egoera onean badaude, GKEetan edo ERAKUNDEETAN eman ditzakegu. Behar ditzaketen pertsoneri emango dizkiete ordenagailu horiek. Ezagutzen dituzun GKEetan informa zaitez.

BIRZIKLATZEKO

Mota horretako produktu elektriko eta elektronikoen **ENPRESA HORNITZAILE batera eraman dezakegu**, hondakin horiek kudeatzeko erantzukizuna baitute horrelako enpresek, eta produktuen bizitza erabilgarria amaitzen denean, tratamendu-zentro eskudunetara eramaten baitituzte.

GARBIGUNEETAN, PUNTU GARBIETAN EDOTA BILTZEKO UDAL ZERBITZUETAN utz dezakegu



Ba al zenekien...

...Kontsumitzaileen Erakundeen Munduko Federazioak (CI federazioak) zainketa indartzeko eskatu diela gobernuei, garen-bideko herrialdeetan hondakin toxiko gehiago botatzea galaraz dezaten? Esate baterako, kalkuluen arabera, hilero bigarren eskuko milioi erdi ordenagailu iristen dira Nigeriara, eta horietako % 25 baino ez dabil.

Iturria: www.ocu.org



TELEFONIAREN ETA INTERNETEN tratamendua, HEZIKETA KONTUA

Gero eta adingabe gehiagok erabiltzen dituzte telefono mugikorrak eta Internet, eta gainera, gero eta gazteago hasten dira. Horietako gehienak ez dira teknologia horiek erabiltzeak dakarren gastuaren eta arriskuen jakitun.

Pertsona helduon ERANTZUKIZUNA da TEKNOLOGIA BERRIAK MODU ARDURATSUAN ETA SEGURUAN ERABIL DEZATEN SUSTATZEA GURE ADINGABEEN ARTEAN.



Ba al zenekien...

...Euskadin, 15 urte edo gehiagoko herritarren artean, % 64,7k etxean ordenagailu pertsonala duela? Biztanleriaren tarte horretan, % 52,3k Interneterako sarbidea dute, eta %92,3k telefono mugikorra.

“Informazioaren Gizarteari buruzko 2007ko Inkesta”, EUSTAT

TELEFONO MUGIKORRA da adingabeek eta nerabeek gehien eskatzen duten oparietako bat.

Publizitatea gero eta gehiago zuzentzen da kolektibo horretara.

Baina adingabe eta nerabeentzat teknologia berriek ez dute soilik komunikatzeko balio. **Deiak egiteaz eta SMSak bidaltzeaz gain, argazkiak ateratzen dituzte, musika-tonuak jaisten dituzte, jolasean ibiltzen dira...**

GURE ADINGABEKOEK TELEFONO MUGIKORRA EDUKITZEA ERABAKITZERAKOAN, BEHARREZKOA DA ADINA ETA HELDUTASUNA KONTUAN HARTZEA.

Telefono mugikorra modu arduratsuan erabil dezaten sustatzeko proposamenak:

- TELEFONO KONPAINIEN ESKAINTZA GUZTIAK BEGIRATZEA GUZTION ARTEAN, beren beharretara hobekien egokitzen dena zein den balioztatzen ikas dezaten.
- Mugikorrarekin GASTATZEN DUTENAREKIKO ERANTZUKIZUNAK EMATEA adingabeei, hau da, gastuaren zati bat ordaintzeko eskatzea.
- BILTZEKO ZENTRO BAT EDO PUNTU GARBI BAT BISITATZEA, eta erabiltzen ez dituzten aparatu elektronikoak bertan uztea.
- Gure adingabeek MUGIKORRAREKIKO MENDEKOTASUNA edukitzea saihestea. Kultura-jardueretan, kirol-jardueretan, eta abarretan parte hartzera animatzea...

- Telefono mugikorra erabiltzeko **SEGURTASUN NEURRIAK AZALTZEA**. Esaterako, errepidea zeharkatzen ari direnean mugikorra ez erabiltzea, mugikorra itzaltzea hala exijitzen duten lekuetan...
- Telefono mugikorrarekin egindako grabaketen bitartez **BESTE PERTSONEI MEHATXATZEAREN, BELDURRARAZTEAREN ETA JAZARTZEAREN ONDORIOEI BURUZ OHARTARAZTEA**. Laburbilduz, **BES-TEEKIKO ERRESPECTUA EDUKI DEZATEN HEZTEA**.
- **GOGORARAZTEA NORBAITEK BELDURRARAZTEN EDO MEHATXATZEN BADITU**, berehala **JAKINARAZTEKO ZALANTZARIK EDO BELDURRIK EZ IZATEA**.

Gure adingabekoei **INTERNETEN** modu arduratsu eta seguruan nabigatzen lagundu ahal izateko, informatikako zenbait ezagutza edukitzeko ahaleginak egin behar ditugu. **PRESTATZEN** has gaitzen.

KZgune deritzenak dituzte hainbat udalerrik, eta helduei zuzendutako prestakutza eskaintzen da horietan, teknologia berrietako prestakuntza, hain zuzen ere.

Informazio gehiago izateko:
www.kzguneak.net

Internet modu arduratsuan erabil dezaten sustatzeko proposamenak:

- Ordenagailuan segurtasun **IRAGAZKIAK** jartzea, eta beraz, zenbait Web orrietarako sarbidea mugatzea.
- Internet erabiltzen ematen duten denbora **MUGATZEA**.
- **SAREAN** dauden arriskuei buruz **OHARTARAZTEA**.
- Zein Web-orrialde diren seguruak eta zein ez **ADIERAZTEA**.
- Datu pertsonalak eta oro har nortasuna babesteko modua zein den **AZALTZEA**. Ez dute datu pribaturik eman behar, esaterako, izena, helbidea, edota ikasten ari diren ikastetxea.
- Arraroa edo ezatsegina den zerbait ikusten edo sumatzen dutenean **ABISATU EGIN BEHAR DUTELA OHARTARAZTEA**.
- Adingaberen bat arriskuan egon daitekeenaren susmorik badago, dagokion agintaritzarekin harremanetan jartzea komeni da.
- Adingabekoei edota nerabeei zuzendutako **TXATEKIN** kontuz ibili. Guztiak ez dira seguruak. Hainbat txatek eskaintzen duten anonimotasunaren eraginez, txat horiek arrisku-iturriak izan daitezke, nortasuna faltsutzen duten pertsonak baitaude, eta beraz, pederastekin, prostituzio-sareekin, gaizkileekin, eta abarrekin lotutako arriskuak ezkututzen dituzte...
- Sareak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzen **IRAKASTEA**.

Internet ere HEZKUNTZA BALIABIDE BAT da.
Teknologia garapenerako eta ezagutzarako erabilgarria den
baliabide gisa erabiltzen ikasi beharko dute gure adingabeek.

Internerako ere ADINAK daude...

8-11 urte bitartean	Informazioa bilatuz gozatzen duten adina da hori. Informazioa aurkitzeko tresna ona da Internet. Une egokia da adingabeek Interneten emandako denbora eta denboraldi horretan pertsona helduak adingabeekin egoteko denbora neurtzeko; egokia da adin horretako haurrei adieraztea Internet ondo erabiltzen duten pertsonak eta gaizki erabiltzen dutenak daudela, beste hainbat testuingurutan bezala.
12-14 urte bitartean	Adin-tarte horretako nerabe gehienek ordenagailua eta Internet erabiltzeko teknika menderatzen dutela kontuan hartuz, horiek erabiltzeko arauak bete ditzaten azpimarratu behar zaie (motak, denbora, eta sarbidearen iraupena); legez kanpoko eta delituzko edukiei, eta horien ondorio penalei buruzko legedia azaltzea komeni da, eta baita adin horretako gazteek jaisten dituzten gauzen edukia ezagutzea ere.
15-18 urte bitartean	Adin horretan, garrantzitsua da gure adingabeek Interneti ematen dioten erabileraren jarraipena egitea, jarraipen soila bada ere. Sareari erabilerara helduagoa ematera animatzeko garaia da hori: zinemako sarrerak eta treneko edo hegazkinetako txartelak ateratzea, liburuak erostea... Kasu askotan, gaztearen beraren familiarentzat edo ingurukoentzat interesgarriak izan daitezkeen gauzak dira.

“Infancia, juventud e Internet. Nociones básicas y principios para su buen uso”, 2004, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa